ASTEKARIA - 2009ko otsailaren 20an - XIII. urtea - Usurbil, 356. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua !!



Mendeku Itxua taldeak prest du disko berria



Asteburu honetan,

# Inauteri Jaia, kolore festa


Zer erreko litzateke erraustegian?
metalezko ontzi arinak %3,25
latorria %2,99
aluminioa %0,26
Burdinezko metalak, ez ontziak %0,43
Bestelako ontziak (konplexuak,brik-ak) %1,58
Guzti-guztia birziklatu edo berrerabiltzeko gaia!
ERRAUSKETARIK EZ LURRA BASERRIA HERRIA BIZIRIK
Osasun-tekniko batzordea
*Iturria: San Markosko Mankomunitatearen Hiri Hondakinei buruzko Plan Integrala 2002-2016.
ALKARTASUNA
Usurbilgo Udala


GONZALEZ EHORZTETXEA
munalurra 8 Usurbil
30.URTEURRENA
Gonzalez Ehorztetxeak 30 urtetan Usurbildarrek guregan izandako konfidantza eskertu nahi du:
·Segururik ez duten familientzat Usurbilgo tanatorioa DOAN izango da, gure ehorztetxearen eskutik.
· Seguru dutenak eta ZUZENEAN Gonzalez ehorztetxeari deitzen duten familientzat BONIFIKAZIO bat izango dute zerbitzuan.
24 ORDU, BELATOKI GUZTIAK, SEGURU GUZTIAK, ERRAUSKETAK, LEKUALDAKETAK, EGOITZETAN...
943 36 21 63 - 660 388 652 - 608 167 792


PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!
ATE IREKIAK
etorriko zarela jakinarazi!
GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
MARTXOAK 12 - 17:30 osteguna AULA MAGNA
ARRASATE-MONDRAGÓN Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu
OTSAILAK 26 - 17:30 osteguna AULA MAGNA
ORDIZIA Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
OTSAILAK 21 - 10:00-13:00 larunbata AULA MAGNA
IRUN Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
MARTXOAK 12 - 18:00 osteguna AULA MAGNA
ESKORIATZA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu
www.mondragon.edu/prest

## Albistea iruditan !!

# Hiru urte egin ditu Aitzagak itxita

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Fernando Grande Marlaska epaileak fiskalaren eskaerari erantzunez, Usurbilgo Aitzaga kultur elkartearen egoitza itxi egin zuen 2006ko otsailaren 11n. Egunotan, beraz, hiru urte bete dira Aitzaga itxi zutenetik.

1994an zabaldu ziren Aitzaga elkartearen ateak. Geroztik, kultur eta kirol ekimen ezberdinen sustatzaile eta aterpe izan da Aitzaga. Elkarte gastronomikoa ere bazen. Gaur egun, elkartea bera legezkoa da baina egoitzak itxirik jarraitzen du.

Prentsa ohar bidez, argazki hau eta testu hau jaso dugu NOAUA!ko erredakzioan: "Aitzaga maite dugunok ez dugu egun hura ahazten eta ez gara Aitzagaz ahazten, gure bihotzetan jarraitzen du presente. Aitzaga ireki!".

### 120 bazkide

Aitzaga elkarteak, itxi zutenean, 120 bazkide zituen. 2004an, hamargarren urteurrena ospatu zuen.

2002tik aurrera, asko izan dira Aitzagaren moduko gorabeherak izan dituzten elkarteak Euskal Herrian.




AURREKO ASTEAN, AITZAGA AURREAN BIHOTZ BAT ETA KARTEL HAU IPINI ZUTEN.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com
Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.
Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.
Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.
Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.
Tirada: 2.600 ale
Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

UDALBATZA PLENOKO ERABAKIAK ____ 7. OR.
MENDEKU ITXUAK CD BERRIA PREST ____ 8. OR.
MOZORROAK NAGUSI INAUTERI JAIAN ____ 13. OR.
3 DOMINA ANDOAINGO PIANO JAIALDIAN ____ 14. OR.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!!
Euskal presoak
Euskal Herrira!
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza














IDOIA TORREGARAI

# Ama hasiberriaren balada (II)

Aurreko zutabeari jarraituz, hementxe nator berriro guraso "karguarekin" batera egunero aurkitzen naizen egoera xelebre batzuk kontatzera, dagoeneko, hori bai, bost hilabete t'erdiko "esperientziarekin":

Kotxezitoa edo karritoa. Aurreko zutabean aipatu nuen logistika ataleko zati garrantzitsua edozein guraso hasiberrientzat. Alde batetik, aukeratzeko garaian harrituta geratzen zara dauden aukera piloarekin: lau edo hiru errubera, manillar osoa edo zatitua, suspensioekin edo gabe, halako freno edo bestea... Fernando Alonso izango bagina ere! OHAR GARRANTZITSUA: karritoa kotxeko maleteroan sartzen den AURRETIK jakin behar da. Zergatik uste duzue daudela hainbeste monobolumen?

Hurrengo pausoa karritoaren erabilera ikastea da. Komeni da haurra bertan sartu aurretik hainbat froga egitea (horretarako panpin bat erabili dezakegu. Ez daukanarentzat meloi edo kalabaza batek ere balio dezake). Nik ariketa hauek egitea gomendatzen dut:

1. Edozein igandeko eguerdiko poteoan praktikak egitea (ahal bada, euria egiten duen egun batean). Ariketa honekin gurasoek jendea eskibatzen duten trebezia landu eta karritoak duen tamainaren kontzientzia hartuko dute.

2. Eliza inguruko adokinetatik paseatu. Ariketa honen bidez jakingo dugu ea haurra kotxezitotik airean aterako zaigun saltoengatik eta goian aipatutako suspensioak ordaindu genuena balio zuten.

3. Karritoarekin goazenean telefonoz hitz egin. Ariketa honi plus bat gehitzeko guardasola ere irekita edukiko dugu. Honen bidez, gure psikomotrizitatea landuko dugu.

Dutxa. Une honetan ez naiz gogoratzen noiz hartu nuen azken bainua. Beno, gezurra; badakit zehazki noiz izan zen: orain dela BOST HILABETE T'ERDI. Nik ez dakit beste amak, baina lehen hilabete hauetan dutxatzearena (bainatzearena utopia da) abentura bat da niretzat. Gutxi gora behera, horrela izaten da kontua:

1. Hankagorriya poz-pozik dago, bere jostailuekin jolasten, barrez.

2. Egoera aprobetxatu eta hamakatxoan jartzen duzu, dutxa azkar bat hartzeko ilusio guztiarekin. Hankagorriyak poz-pozik jarraitzen du.

3. Hamakatxoa komunera ekartzen duzu eta dutxa prestatzen hasten zara hankagorriyari abesten diozun bitartean. Dena primeran doa.

4. Dutxako txorrota irekitzen duzun UNEAN, hankagorriya bere biriken kapazitate guztia frogatzen hasten da, Placido Domingo izango balitz bezala.

5. Adrenalina topera igota, hortxe hasten zara dutxa hori hartu nahian, baina negar dezibelioak gora doazen bezala, azkenean txanpua buruan eta toalla ahal den tokian jarrita dutxatik ziztu bizian ateratzen zara.

6. Hankagorriya besoetan hartzen duzu daukan "tragedia" kontsolatzeko asmoz. UNE HORRETAN BERTAN, automatikoki, garbitu gabe geratu zaizkizun tximetatik tiraka hasten da barre algara batean, pozez zoratzen.

7. Hurrengo egunean, lankideak ez dizute ezer esaten, baina begietan antzematen zaie zure "look" berriak sortarazten dien errukia. Albert Einstein eta La bruja Averiaren tarteko zerbait.

Baina zein ederra den guraso izatea...

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - **Idoia Torregarai**

Ika-mika!!

# Atez-ateko bilketaren aurkako plataformari eta bere sinatzaileei

Egiaren ordura heldu gara. Atarietan zintzilikarioak jartzeko orduan zuek molestiak ikusten dituzue. "Ahazten" duzue zuen zaborra nonbaitera eramaten dela eta han jartzen duela kiratsa; askok emango lukeela edozer etxe ondoan zabortegi edo erraustegi baten ordez zintzilikario batzuk jarriko balizkiote… Perspektiba eta elkartasun pixka bat eduki ezazue, eta begira ezazue zuen atarietatik apur bat haratago: zer esan behar diezue zuen seme-alabei 20-30 urte barru, zuen atarietan zintzilikario batzuk jartzea molestia handiegia zelako utzi zenietela Gipuzkoa zabortegiz beteta edo erraustegi kutsatzaile batekin?

Non egon zarete orain arte? Non zeundeten Gipuzkoako aditu boluntario talde batek zaborrak kudeatzeko sistema guztiak ikertu, konparatu, espezialistei aholkua eskatu, eta informazio zehatza bilatu, eta gaur egun errealitate bihurtzen ari garen ondorioetara iritsi zenean? Zergatik ez zenuten orduan zuen "soluzioa" proposatu? Erantzuna badakigu: zuen proposamenak ez du funtzionatzen. Behar diren birziklatzehelburuak ez ditu betetzen. Baina antza, ez zaizue axola, zuen buruetan bakarrik pentsatzen ari zaretelako.

Zuen sinatzaile gehienek benetako informaziorik eduki gabe sinatu duelakoan gaude. Horren froga dira, azkenaldian herrian dabiltzan zurrumurruak. Ez duzue onartu nahi zaborraren arazoa politikatik aparte dagoen gauza dela, beti dena politizatzeko mania hori alde batera utzi behar dugula behingoz, bestela inoiz ez dugula ezer onik aurrera aterako. Eta denok (denok!) apurtxo bat aportatu behar dugula, hiritar moduan gure (eta zuen, eta denon) obligazio morala delako, eta ez agintariek agintzen digutelako.

Usurbil Bizirik herri galdeketaren alde dago eta udaletxeko plenoan bidea emango zitzaiola esan zen eragozpenik ez bazegoen. Ez gaude ordea herri galdeketa, proiektua atzeratzeko aitzakia bezala erabiltzearen alde. Eta denbora ez da soberan daukagun gauza, lehenbailehen erakutsi beharra daukagu alternatiba honen bideragarritasuna eta emaitzak. Erraustegiaren plazoak pixkanaka baino pausarik gabe betetzen ari dira; herri galdeketa batek geldituko ote luke hau ere gurea gelditu nahi duten bezala? Gainera, zer hobeto herri galdeketa batean zure iritzia ezagutzen dugun zerbaitetaz ematea (erderaz esaten den bezala, "con conocimiento de causa") eta ez hortik dabiltzan sasi-informazio eta erdi-gezurretan oinarrituta baino?

**Usurbil Bizirik**

# Foru Aldundiaren dirulaguntza politika kritikatu dute euskara elkarteek

**Foru Aldundiak Euskara Elkarteen Topaguneari eta Kultur Errotari babesa erretiratu izana salatu du Topaguneak berak. Kultur emanaldien zirkuitu hau arriskuan dagoela ohartarazi dute.**


TOPAGUNEAK PRENTSAURREKOA ESKAINI ZUEN ASTEARTEAN DOKA KAFE ANTZOKIAN.

Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak asteartean adierazi zuenez, azken urteotan Gipuzkoako Foru Aldundiak 49.000 eurorekin babestu ditu Kultur Errota formatu txikiko kultur emanaldien zirkuitua eta Topaguneak bere bazkideekin egindako sustapen lanak. Hasiera batean, erabakia krisialdiari lotua aurkeztu zuten Foru Aldundiako arduradunek, baina egitasmoak singularitate falta duela adierazi dute azkenik eta, horrekin batera, Diputaziotik herri txikiei zuzenean eskaini nahi dieten kultur zirkuitu propioa aurreikusia dagoela azaldu diete Topagunearen ordezkariei.

Erabaki politikoa dela salatu du Topaguneak. NOAUA! Kultur Elkartea Topaguneko kide da.

## Dirulaguntzak eskatzeko garaia da

Kultura, Kirola eta Gizarte Ongizateko dirulaguntzak eskatzeko oinarriak plazaratu dira GAOn. Udalak, ahalik eta azkarren banatu nahi ditu dirulaguntza guztiak. Eskabideak egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

-Dirulaguntza eskaera beteta.

-Ekintzen deskribapen fitxa.

-Nortasun Agiriaren fotokopia. Eskaera talde batek egiten badu eta erregistratuta badago, identifikazio fiskalaren kodearen kopia.

-Gizarte Segurantzan eta Ogasuneko Betebeharretan egunera egotearen agiria. Informazio gehiago, udal erregistroan.

## Etxebizitza sozialetan izena emateko epea

Udalak, Txaramunto kalean dituen 12 etxebizitza alokairu sozialean jartzea erabaki du. Errenta kontratuak urtebetekoak izango dira, gehienez ere bost urte arte luzagarriak. Eta errenta kuota, eskatzaile bakoitzaren diru-sarreren menpe egongo da, eta urtero berraztertuko da.

Dagoeneko, maizterrak aukeratzeko lehiaketa martxan da. Parte hartu nahi duten herritarrek otsailaren 20ra arte dute izena emateko epea. Baldintza pleguak Foru Aldundiko aldizkari ofizialean daude honako helbidean:

https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/01/28/e0900521.htm

## Laster hasiko da TELP ikastaroa

Udalak TELP izeneko ikastaroa antolatu du, euskaraz eroso mintzatzen ikasteko tailerra. Hobeto espresatzeko baliabideak eskainiko dira, ohitura eta esperientzia propioei arreta berezia jarriz.

**Ikastaroa** Artzabalen egingo da. Otsailaren 28an hasiko da eta martxoaren 7 eta 14an jarraituko du. Ordutegia: 10:00-13:30.

Izen-ematea otsailaren 20an amaituko da. Matrikulazioa doan usurbildarrentzat edo Usurbilen lanean ari direnentzat. Gainerakoek 20 euro.

E-posta: euskara@usurbil.net

Telefono zenbakia: 943 371 999.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
*Kale Nagusia 10, 1.C4* *20170*
*Tlf 943 37 08 78* *USURBIL*

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
✆ 943 69 68 52 · 620 800 186

# Astebetean 1.194 sendiek jaso dute atez ateko bilketan parte hartzeko materiala

**Ia mila berrehun etxebizitzetan jada bada, atez atekoa egiteko beharrezko materiala; organikoa jasotzeko bi ontzi, kartela, imana eta gida. Udalak burututako deialdiak izan duen erantzunarekin atez ateko eragileak baikor agertzen dira, hain zuzen, aurreikuspena bi mila sendirengana ailegatzea baitzen. Halere, banaketa lanak ez dituzte amaitu. Materiala eskuratzeko aukera dago oraindik aste honetan, Sutegiko informazio bulegora hurbilduta.**



ATEZ ATEKO MATERIALA BANATZEN ARITU DIRA, AUZOETAN ETA KAXKOAN.

Bi mila sendirengana ailegatzea zen Udalaren aurreikuspena eta astebetean erdiak baino gehiagok 1.194 etxebizitzek atez ateko bilketa sistemarako behar duten materiala izatea lortu da. Aldez aurretik egindako deialdiak herritarren artean izandako harreraren inguruan, balorazio baikorra egiten dute atez atekoaren eragileek.

**MATERIALA, SUTEGIN**

"Oraindik jaso ez dutenek, Sutegira joan daitezke materiala jasotzera"

Baina helburua, herritar guztiek atez atekoa egiteko baliabideak izatea da. Oraindik etxean beharrezko materiala ez dutenek, Sutegira joan daitezke hartzera aste honetan zehar. Ordutegia honakoa da: astelehenetik ostiralera, goizez 10:00-13:30 artean eta arratsaldez, 16:00-20:00 artean.

### Zintzilikagarriak ugaritzen

Aurrera doaz atez ateko bilketa sistema martxan jartzeko prestakizun lanak. Azken asteotan Kaxkoko hainbat atarietan zintzilikagarriak jarri dituzte udal langileek. Pixkanaka, atez atekoa egingo den eremu guztian ikusi ahal izango dira. Atez ateko eragileak herritarren proposamen eraikitzaileak jasotzeko prest daude. Kokaguneari dagozkionak bereziki. Iradokizunik egin nahi duenak Sutegiko informazio bulegora hurbil liteke. Bertan, Udalak etxe atariei ateratako argazkiak dituzte. Interesdunak zintzilikagarriak jartzeko leku egokiagoren bat baldin badu, horren berri eman dezake.

### Atalluko lanak aurreratuta

Landa eremuan bizi diren herritarrek sortutako hondakinak parte hartze prozesuan zehaztuta geratu zen moduan, ez dira atez ate bilduko. Gune desberdinetan kokatuko diren hiru bilketa guneetara jo beharko dute egun bakoitzari dagokion hondakin zatia uztera. Aginaga, Zubieta eta Kaxkora, Atallura hain zuzen. Azken biltoki horretako lanak aurreratuta daude jada. Atez atekoa martxan jartzeko geroz eta denbora gutxiago geratzen den seinale.

## Herri kontsulta eskatu duten eragileekin datorren astean bilduko da Udala

**Iaz, uda aurretik auzoz auzo egin zituen Udalak atez atekoaren inguruko aurkezpen saioak. Gerora, urritik aurrera, sektoreka eta auzoka egitasmoa aurkeztu eta herritarren ekarpenak jaso edota zalantzak argitzeko bilera sorta burutu zen.**



UDALA ETA PLATAFORMAREN ARTEKO BILERA DATORREN ASTEAN EGINGO DA.

Sortu berri den herri plataforma dela eta, herritar guztiengana heltzeko bitartekoak jartzeko prest dago Udala. Horren erakusle, kontsulta eskatu duten plataformako kideekin nahiz zalantzak izan ditzaketen gainerako herritarrekin egin nahi dituzten bilkurak.

# Atez ateko sistema onartu da udalbatza-plenoan, herri kontsultaren proposamena kontuan hartuko da

**Otsailaren 13an, pleno-aretoa txiki geratu zen. Arratsaldeko 18:00ak pasata hasi zen ez-ohiko udalbatza plenoan, atez ateko proiektua abian jartzea erabaki behar zen. Bilketa sistema honen aurka dagoen plataformako kide asko izan ziren plenoan; atez atekoa defendatzen dutenak ere bertaratu ziren. Hasieran tentsioa izan bazen ere (alkatea euskaraz ari zela, jendarteko batek kastellanoz hitz egiteko eskatu zioenean), ondorenean lasai antzean joan zen eztabaida.**

Plenoaren bezperan, atez ateko plataformaren aurkakoek 600dik gora sinadura aurkeztu zituzten. Eusko Alkartasunak, Luismari Ormaetxea zinegotziaren ahotan, udalbatza plenoko hiru puntuak mahai gainean utzi (ez bozkatu, alegia) eta herri kontsultaren eskaera kontuan hartzea eskatu zuen.

> **PROIEKTUA, AURRERA**
>
> "Atez ateko bilketa martxan jartzeko erabaki garrantzitsuak hartu ziren azken plenoan"

Xabier Mikel Errekondo alkateak, udal gobernuaren izenean, herri kontsultaren eskaera bide administratiboa jarraitzen ari zela aipatu zuen. Herri kontsultak egitearen aldekoak direla aipatu arren, atez ateko bilketa sistemari lotutako aztergaiak bozkatzea eskatu zuen. Batak ez zuela bestea kentzen, hitz gutxitan esanda. Pazientzia handiz atenditu zituen, gainera, jendartetik nola korporaziotik egin zitzaizkion galdera eta iradokizun denak.

### Aralarren bozkak

Aralarrek bi zinegotzi ditu eta bietako batek, Joxe Ramon Furundarenak, sinadurak aintzakotzat hartu eta ahalik eta azkarren herri kontsulta egitea proposatu zuen. Ez zaiola galdetzeari beldur izan behar eta atez atekoaren aldekoak nagusituko zirela adierazi zuen Furundarenak. Bien bitartean, herri kontsulta egin arte, otsailaren 13ko plenoko puntuak mahai gainean uztearen alde agertu zen.

Lontxo Zubiria Aralarreko beste zinegotzia, aldiz, plenoko hiru puntuak bozkatzearen alde azaldu zen, errausketaren aurrean hori delako birziklatze-tasa handienak ematen dituena eta kontsulta eskaera kontuan hartzekoa dela uste duen arren, atez ateko proiektua ezin dela orain gelditu aipatu zuen.

### Bilera ireki bat proposatu zuen PSE-EEko zinegotziak

Amaya Goyaranek (PSE-EE) bilera ireki bat deitzea eskatu zuen, herritarrek dituzten zalantza guztiak argitzeko. Bien bitartean, ostiraleko udalbatza plenoa astebetez atzeratzea proposatu zuen.

### EAJ-PNVren ustez, tarifak oso altuak dira

Iñaki Illarramendi (EAJ-PNV) ere atez atekoaren alde azaldu zen. Plenoko gaiak bozkatzerakoan, lehen bi puntuetan abstentzioaren alde egin zuen baina zabor bilketa zerbitzuaren ordenantzaren tarifa aldaketa hasieraz onartzearen aurka bozkatu zuen.



ZINEGOTZI DENAK IZAN ZIREN AZKEN UDALBATZA PLENOAN.

### Txaloak pleno amaieran

EAk eskatuta, pasa den ostiraleko plenoko aztergaiak mahai gainean utzi edo ez bozkatu ziren lehenik. EAE-ANV eta Aralarreko zinegotzi baten bozkarekin, plenora eramandako gai denak bozkatzearen alde azaldu zen udalbatza.

Gaiak banan bana bozkatzeko unea iritsi zenean, ñabardurak ñabardura, puntu denak onartuak izan ziren. Pleno amaieran, txaloak entzun ziren.

### Onartu diren gaiak

Hauek izan ziren aurreko ostiraleko udalbatza plenoan aztertu eta onartu ziren gaiak:

1.- Atez ateko gaikako hondakin bilketa abian jartzeko proiektua onartzea.

2.- Usurbil Atez Ate, SA sortzea. Memoria eta Estatutuen behin betiko onarpena.

3.- Zabor bilketa zerbitzuaren ordenantzaren tarifa aldaketa hasieraz onartzea.









# “Indarrak batuz”

## Mendeku Itxuaren disko berria, apirilerako prest

**Udaberrian zeresana emango du Mendeku Itxua, herriko musika taldeak. Hala izateko arrazoiak badituzte behintzat. Iragan astean Sutegin grabatu zuten bideoklipa batetik. Edota bi hilabete barru eskuragarri izango den “Indarrak batuz” euren lan berria bestetik. Elkarrizketa egitear ginela, azken orduan, ezusteko bikaina jaso zuten; Bilbao Hiria Pop Rock lehiaketaren bigarren fasera igaro dira.**

**NOAUA! Albiste pozgarria jaso berri duzue?**

**Martin Larrañaga.** Bilbao Hiria Pop Rock Europa mailako lehiaketara, estatuko garrantzitsuenetarikora lan berriko hiru abesti bidali genituen. Orain, bederatzi bat talde bakarrik aukeratu dituzte, gu tartean. Metal estiloaren barruan.

**APIRILEAN BILBON JOKO DUTE**

“Bilbo Hiria Pop Rock Lehiaketan parte hartzeko gonbidapena jaso berri dute”

**Ander Aizpurua.** Bigarren fase honetan, kontzertua eskainiko dugu, Bilbon apirilaren 15ean.

**N. Apirilaren 15eko emanaldiak lan berria aurkezteko balioko dizue. Jendaurrean aurkeztuko duzuen lehen aldia izango da?**

**Ixak Arruti.** Ez erabat. Lehen ere kontzertu baten errepertorioan kanta bat edo beste sartu izan dugu.

**M. L.** Diskoa kaleratu osteko lehen emanaldietako bat izan liteke. Lan berria ordurako kaleratua izatea espero dugu.

**N. Lehiaketan aurrera zoaztela jakiteak, ezustean harrapatu zaituzte?**

**A. A.** Zirraragarria da. Ez genuen espero. Ni lehiaketaz erdi ahaztua nengoen. Gaur korreoa ireki dut eta ia zer zioten begira jartzean, aukeratuak izan garela jakin dut. Ezin nuen sinistu.



SUTEGIN IZAN DIRA EGUNOTAN BIDEOKLIPA GRABATZEN.

**I. A.** Ohore bat da, diskorako hainbeste lan egin ostean. Eta hainbeste buruko-min, eztabaida, ahalegin, entsegu, izerdi eta gero, halako albiste batek indarra, konfiantza eta poza ematen du. Egindako lana alferrikakoa ez dela izan sentitzen da.

**M. L.** Kristoren apustua egiten ari gara. Lan handia exijitzen du, diskoa auto ekoizteak, bideoklipak... Halako gauzek konpentsatu egiten dute. Sari modukoa da. Sartu ditugun ordu pilak bere fruituak ematen dituela ikusten da.

**N. Dena batera etorri zaizue, aste berean lan berrirako bideoklipa grabatzen aritu zarete eta. Bilbo Rock lehiaketa ezagunean aurrera egitea zuen lanerako label moduko bat izango al da?**

**I. A.** Data aldetik oso aproposa izan da, lehiaketa noiz egiten ari den eta gu diskoarekin nola goazen ikusita.

**A. A.** Bideoklipa grabatu dugu. Hilabetean editatuko digute. Beranduenez, apirila hasieran bideoklipa eta disko berria kalean izango genituzke. Jarraian, promozioa hasiko litzateke hedabideetan. Apirila erdialdean Bilbo Rock lehiaketan joko dugu.

## “Indartsuagoa da lan hau”

**NOAUA! Aurreko lanetik oraingora zer desberdintasun azpimarra ditzakezue?**

**I. A.** Lehenengo lana erraz gainditzen du. Soinu aldetik kristorena da eta musikalki, hobeto jotzen dugu. Abestiak sortzerakoan ere heldu gara. Trikimailu gehiago dakizkigu, kantak borobilagoak dira. Indartsuagoa da lana; letra zuzenak eta abesti indartsuak ditu. Grabatzen ere kristoren giro ona izan dugu. Plazer hutsa izan da.

**M. L.** Haritz Harreguyk asko lagundu digu. Egin duen lanaren aurrean, makurtu beharko genuke. Musikalki, gu jasaten eta bidean sortu diren oztopoen aurrean lagundu digu. Berarekin asko ikasi dugu.

# Bideoklipa Sutegin grabatu dute

**NOAUA! Bideoklipean zuen lan berriko abestietako bat agertuko da. Nola egin duzue aukeraketa?**

**A. A.** "Herentziaren mendekua" izena du. Lan berria gutxi batzuk entzun dute. Entzun duten gehienei atentzioa eman die kanta horrek. Errepika oso erakargarria du.

**I. A.** Kanta horren egitura, egiteko modua edota melodiagatik. Besteak baino apur bat garatuagoa dago. Alex Tellok egin du letra. Istorio bat sortu eta bideoklipa egiteko oso egokia zela ikusi genuen. Asmatu dugula uste dugu.

**N. Zer moduz moldatu zarete Sutegin, grabaketa lanekin?**

**A. A.** Luxuzkoa izan da. Bi egun pasa genituen grabatzen. Plato bat alokatzea bezala edo hobeagoa izan da. Gertu baikenuen, herrian bertan.

**I. A.** Argiak gure kontutik jarri ahal izan ditugu. Erosoa da, kristoren lekua.

**N. Kolaboratzaileak ere izan dituzue?**

**M. L.** Kristoren laguntza izan dugu. Egoitz soinu teknikaria, Igor argi teknikaria, Txerrikiren laguntza… Lan handia egin dute. Gu lau gara, baina gugatik zenbat jende mugitzen den... Eskerrak guztiei.

**I. A.** Eta denok ilusioz, nekatuta ginen, baina halere elkar animatzen. Dugun guztia eman genuen.

**N. Lan berriaren inguruko aurrerapenik egin dezakezue?**

**A. A.** "Indarrak batuz" izena du lan berriak. Hamabi abesti ditu. Haritz Arreguy herritarrarekin grabatu dugu IZ estudioan Amasa-Villabonan. Oso gustura gaude, izugarri lagundu digu. Hilabete pasa genuen topera grabatzen. Kristoren indarra du. Behingoz kaleratzeko desiratzen gaude eta ia jendeak zer dioen.



ALEX TELLOK ERE HARTU DU PARTE MENDEKU ITXUA TALDEAREN BIDEOKLIPEAN.

## "Kontzertu batzuk ere lotzen hasi gara"

**NOAUA! Diskoa laster plazaratuko duzue. Beraz, aurtengo udaberria mugitua izango da Mendeku Itxua taldeko kideentzat, ezta?**

**A. A.** Kontzertu batzuk ere lotzen ari gara. Oso pozik gaude. Lan handia eginda, dena emanda eta gustura gaude, baina gehiago emateko desiratzen. Orain kontzertuak emateko indarrak batzen ari gara.

**I. A.** Gure inguruko jendeari pazientzia pixka bat eskatzen diogu, lan berria kaleratzeko guk adina gogo inork ez baitu. Itxaroteak merezi izango du.

**Lan berriko abestiak entzungai:**
www.myspace.com/mendekuitxua
www.mendekuitxua.net

## Jende askoren laguntzarekin egina




**NOAUA! Orain bizitzen ari zareten lan prozesu horren isla da laneko izenburua?**

**I. A.** Orain inoiz baino gehiago ari gara ikusten "indarrak batuz" dela. Lehengoan ere Sutegi betea zegoen.

**M. L.** Atzean dagoen jende askoren laguntza dugu.

**A. A.** Jendearen indarrak batuz aurrera egingo dugu, eta aurrera goaz.

# Usurbilen eman diren emaitzak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan

**Eusko Legebiltzarra azken aldiz aukeratua izan zenetik hona, hainbat aldaketa eman dira, bereziki, bozka gehien jaso dituzten korronte politikoen artean.**

2005ean, EA eta EAJ-PNV alderdiek koalizioa osatu zuten. Usurbilen, boto gehien jaso zuen proposamen politikoa izan zen hura. 2009an, ordea, koalizioa ez da berritua izan eta bi alderdiak bereiztuta aurkeztuko dira.

Ezker Abertzaleak, 2005ean, EHAK siglekin aurkezteko aukera izan zuen. Honakoan, ordea, Ezker Abertzalea hauteslehiatik kanpo utzi dute eta ez du Gasteizko parlamentuan ordezkaritzarik izango.

Bi ñabardura hauek ikusi behar nola eragiten duten mapa politikoan. Erantzuna, martxoaren 1ean jakingo dugu.

| 2005eko emaitzak | | 2001eko emaitzak | |
|---|---|---|---|
| EAJ-PNV/ EA | 1.282 | EAJ-PNV/ EA | 1.642 |
| EHAK | 1.087 | EH | 1.109 |
| PSE-EE PSOE | 378 | PSE-EE PSOE | 382 |
| ARALAR | 206 | | |
| PP | 180 | PP | 320 |
| EB-IU | 113 | EB-IU | 101 |
| Errolda | 4.663 | Errolda | 4.460 |
| Hautesleak | 3.202 | Hautesleak | 3.083 |
| Abstentzioa | 1.461 | Abstentzioa | 877 |



# Aginagan, Zubietan, Santuenean, Kalezarren eta Udarregi ikastolan jarriko dira hautes-mahaiak

**Martxoaren 1eko bozketa goizeko 9:00etan hasi eta arratsaldeko 20:00etan bukatuko da, etengabeko ordutegian. Hautesleek hauteskunde erroldaren arabera dagokien mahaian soilik izango dute zuzenean bozkatzeko aukera. Usurbilen, bederatzi izango dira jarriko diren mahaiak.**

Bozka ematera hurbiltzen denak, mahaiburuan denari izena eta abizena esan beharko dizkio eta titularraren argazkia duen agiria erakutsi (NANa, pasaportea edo gidabaimena) eta bozketa kartazala eman.

Azken hauteskundeetan bezala, bederatzi hautes-mahai jarriko dira: Udarregi ikastolan 3, Santuenean 2, Kalezarren 2, Aginagan 1 eta Zubietan 1.

**Martxoak 1 igandea, hautes-mahaiak**

| Lekua - Helbidea | Barrutia | Atala | Mahaia | Letrak |
|---|---|---|---|---|
| Udarregi Ikastola. Gernika ibilbidea 11 | 1 | 1 | A | A-I |
| Udarregi Ikastola. Gernika ibilbidea 11 | 1 | 1 | B | J-Z |
| Kultur Elkartea. Santuenea auzoa 12 | 1 | 2 | A | A-K |
| Kultur Elkartea. Santuenea auzoa 12 | 1 | 2 | B | L-Z |
| Aginaga Herri Ikastetxea. Erriberako kalea 7 | 1 | 2 | C | A-Z |
| Haur Eskola. Kalezar | 1 | 3 | A | A-K |
| Haur Eskola. Kalezar | 1 | 3 | B | L-Z |
| Lanbide Eskola. Zubieta auzoa, 9 | 1 | 3 | C | A-Z |
| Udarregi Ikastola. Gernika ibilbidea, 11 | 1 | 4 | U | A-Z |




KANPAINAKO HERRIKO EKITALDIA
Otsailaren 22an, eguerdiko 12:30tan
Frontoi atzean:
MUSIKA
HIZLARIA
PINTXO BANAKETA
AZALDU!
www.demokrazia3m.com
BOZKATU D3M

# Larunbat honetan, Inauteri Jaia

## Emanaldietarako oholtza jarriko dute Txerriki taldekoek frontoian

**Abestu, dantza egin, jantzitako mozorroarekin desfilatu… Nahi dena egiteko oholtza bat jarriko dute Txerrikikoek otsailaren 21ean, goizez frontoian. Bertara zerbait egiteko gogoz den edonor igo liteke. Berdin dio adinak edota zer emanaldi eskaini nahi den. Baldintza bakarra; goizeko 10:30-11:30 artean izena ematera frontoira joatea, nahi den bezala mozorrotuta.**



GOIZEKO 10:30EAN HASIKO DA INAUTERI JAIA FRONTOIAN.

**NOAUA! Iazko jaialdiarekin alderatuta, goiz librea planteatzen duzue inauteri festa egunerako, ezta?**

**Ixabel Agirresarobe.** Txerriki goiza girotzeaz arduratuko da. Festa alai bat izatea nahi dugu. Hasteko, egun horretan etxetik mozorrotuta atera beharra dago. Etxean norberak nahi duen mozorroa jantzi dezala, gaia librea baita, bakoitzak bere inauteriak bizi baititu. Goizeko 11:30etik 13:00era eskenatoki bat egongo da frontoian, norberak dituen abileziak erakusteko balioko duena; playback-ak, mozorro zoragarriak erakusteko desfileak, koreografiak… Aldez aurretik jendeak emanaldiak prestatzea nahiko genuke. Izen emateko ordua jarriko da; 10:30-11:30 artean, frontoian bertan.

**IXABEL AGIRRESAROBE**

"Inauteri festan denok parte hartzea nahi genuke, arratsaldeko desfilera arte itxaron gabe"

**N. Emanaldiren bat eskaini nahi duenak zer material izango du eskura?**

**I. A.** Musika ekipoa egongo da, teknikari batekin. Mikrofonoa izango da. Abestu edota dantza egiteko musika behar duenak, etxetik CD bat ekarri eta teknikariak jarriko du. Gauerdi txarangakoek ere desfile bat egingo dute, eskenatoki gainean.

**N. Adin aldetik ere edonork parte har dezala…**

**I. A.** Puskatu nahi dudan ohitura da. Egun argiz festa giroa haurrena dela dirudi, eta ilunabarra gazte eta helduentzat. Nahi duenak parte hartzea gustuko dugu guk. Adin mugarik jarri gabe. Familiak, koadrilak, bikoteak, norbanakoak… Edonor animatzen bada, aurrera. Dena libre. Egun horretan, inauteri festan denok parte hartzea nahi genuke, arratsaldeko desfilera arte itxaron gabe. Arratsaldeko olinpiadetarako goizean entrenamendua egin nahi duenak ere, eskenatokia hor izango du.

**N. Egun osoko festa antolatu eta giroa ez etetea baita helburua?**

**I. A.** Tarte bat egoten da beti, nahi dela zerbait egin baina ez dela ezer izaten. 16:30etan berriz ere kalejira martxan izango da txarangarekin. Frontoitik abiatu, udaletxea igaro, Kale Nagusia pasa eta Zubiaurreneatik errotondora igoko gara. Bertan zerbait egin beharko da. Gero frontoira jaitsi eta desfile olinpikoarekin bat egingo dugu. Ibilbidean zehar, etxeetan daudenak zarata entzuten badute, balkoietara atera daitezela. Hartara, inauteri jaia etxe barruraino sartuko dugu eta. Eta tabernak ere saltsan murgildu daitezela.

**N. Eta une horretan, lekuko aldaketa ailegatuko da…**

**I. A.** Segur aski kalejiran tortxa eramango dugu. Arratsaldekoa olinpikoei pasako diegu. Tortxa protagonista izango dugu. Etxera azkena joaten denak itzali beharko du.

### INAUTERIAK 2009

**OTSAILAK 20, OSTIRALA**

Udarregi ikastolakoen Inauteri jaia. Gaia: "Aupa Inauteriak!".

**10:00** Lehen Hezkuntzako ikasleen kalejira.

**11:15** Inauteri jaialdia Oiardo kiroldegian. Parte hartzaileak: HH, LH eta DBH-ko ikasleak.

**OTSAILAK 21, LARUNBATA**

**10:30-11:30** Frontoian emanaldiak eskaini nahi dituztenentzat izen ematea pilotalekuan bertan.

**11:30** Mozorro festa eta herritarren emanaldiak frontoian. Adin guztientzat. Animatu eta etxetik etorri nahi duzuen mozorroarekin eta gustukoa duzuena egitera etorri.

**13:00** Kalejira Gauerdi txarangakoekin kaxkoan zehar eta bazkaldu eta gero, adi etxafuegoei!

**16:30ak aldera,** kalejira Gauerdi txarangaz lagunduta.

**18:30** Desfile olinpikoa, BTK batuka taldeak girotuta.

**21:00** Afaria Olarrondon. Txartelak aldez aurretik Irratin salgai, 20 euro.

**22:30** Kontzertua Askatasuna plazan. Arima Sutan, Gaueko Itzalak, Garraxi. Sarrera 3 euro.

# Santa Ageda bezpera eta gero, Inauteri Jaia!

Udarregi ikastolako HH5eko haurrak gara. Santa Ageda bezperan, lehenengo erroton-dan aritu ginen eta gero frontoian izan ginen abesten.

Inauteriak ere gainean ditugu eta txapelak (ttunttu-rroak) egiten ari gara **otsailaren 20an**, 11:15ean kirol-degian ospatuko den festarako.

Denok gonbidaturik zaudete!



HH 5 MAILAKO HAURRAK SANTA AGEDAKO KOPLAK ABESTEN, HERRI ERDIGUNEKO ERRONTONDAN.



OSTIRAL HONETAN OSPATUKO DUTEN INAUTERI JAIRAKO TTUNTTURROAK PRESTATZEN ARI DIRA IKASLEAK.

## Zumarte Musika Eskolak hiru domina eskuratu zituen Andoaingo Piano Jaialdian

Aurreko alean aipatu genuen moduan, Zumarte Musika Eskolako hiru ikaslek Andoaingo Piano Jaialdian hartu zuten parte. Hiru artis-tek lan ederra osatu zuten eta domina banarekin itzuliren etxera.

Aizpea Reveriego Garciak brontzezko domina irabazi zuen eta Ainhoa Azpiroz Iztuetak eta Maialen Iñarra Arregik, aldiz, zilarrezkoa. Zorionak!




AURREKO ASTEBURUAN EGIN ZEN PIANO JAIALDIA ANDOAINEN. ARGAZKIAN, ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO HIRU IKASLEAK SARIAK ESKUETAN DITUZTELA.

## Otsailaren 28an, euskal kantu-jira

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak lehen erronka duela hilabete bete zuen; euskal abestiak kantatzeko herritar talde bat bildu ostean. Bigarren helbu-rua, datorren otsailaren 28an gau-zatuko dute. Udarregi ikastolan abian jarri duten ikastaroan, aste-artero prestatzen aritu direna kale-ratzeko aukera izango dute, Euskal Kantu-Jiran.

### 19:00etan, frontoian

Hitzordua, iluntzeko 19:00etan finkatu dute, pilotalekuan. Bertatik abiatuta, kalez kale aritu-ko dira kantuan ordubetez. Antolatzaileek egin duten deialdia irekia da. Beraz, euskal kantuak abesteko gogoz dagoen edonork parte har dezake hileko azken larunbateko ekitaldian.

# Berria Txapelketan, Hernani aurkari

**Datorren asteburuan jokatuko da Usurbil eta Hernaniren arteko norgehiagoka. Aurrez aurre, kadete, jubenil eta nagusien mailako pilotariak. Irabazten duenak egingo du aurrera Berria txapelketan. Partida guztietako tantoak dira garrantzitsuak txapelketa honetan. Tanto gehien egiten duena sailkatzen baita.**

Berria Txapelketan aurkezten den talde bakoitza hiru bikotek osatuko dute: kadeteena, gazteena eta nagusiena. Kanporaketa bakoitzean, maila berekoen arteko partidak jokatzen dira. Ez du irabazten den partidak punturik emango, ordea. Partida irabazi edo ez, haietako bakoitzean lortzen den tanto kopurua hartuko da kontuan.

### Tanto guztiak garrantzitsu

Hiru partidetako tanto guztiak batu, eta gehien dituenak aurrera egingo du, eta besteak ez. Beraz, tanto denak ondo borrokatu beharko dituzte gure ordezkariek.

### Igorre gainditu zuten

Izan ere, Hernani ez da arerio erraza izango. Baina hala tokatu da. Usurbildarrak ondo hasi dute Berria Txapelketa. Urtarrilaren azken asteburuan, Igorre gainditu zuten. Hurrengo faserako sailkatu nahi badute, Hernaniren aurka irabazi beharko dute otsailaren 28ko asteburuan.




Berria Txapelketan parte hartzen ari diren pilotariak.

## Udaberri Txapelketa, asteburuko partidak

Duela hilabete hasi zen Gipuzkoako Udaberri Pilota Txapelketa. Asteburu honetan partida hauek jokatuko dira:

**Otsailak 20, ostirala**
**Aginagan, 20:00etatik aurrera**

**Kadete 2. maila**
**Usurbil - Añorga 2**
(Julen Uli - Imanol Zinkunegi)

**Paleta goma 2. maila**
**Usurbil -Euskal Jolas**
(Josu Arruti-Jon Olaizola)
(Deba)

## Birentzat afaria Urdaira sagardotegian



Rosario Lasak irabazi du Usurbil KE taldeak egin duen azken zozketa. Eskubaloi taldeak eskerrak eman nahi dizkie partehartzaile denei eta Urdaira sagardotegikoei.






## Agenda !!

**Otsailak 21 larunbata**
**Inauteri Jaia**, egun osoan.

**Otsailak 22 igandea**
**Ezker Abertzalearen ekitaldia**, frontoi atzean, 12:30ean. Musika, hizlariak eta pintxo banaketa.

**Otsailak 24 asteartea**
**Euskal kantu ikastaroa,** 19:30etik 20:30era, Udarregiko musika gelan.

**Otsailak 28 larunbata**
**1956 kinto afaria**. Izena emateko: 695 780 696 / 639 510 749.

### KzGunea

**Otsailak 25 asteazkena**
**Sinadura elektronikoa.** 11:00-13:00.

**Otsailak 26 osteguna**
**Foroak eta laguntza,** 11:00-12:00.
**Vía Michelin, bidaiatu.** 12:00-13:00.

*Otsailean Kzgunea: 9:00-13:00*
*(Kale Nagusia 37, 943 361412)*

# Larunbat honetan, kontzertua Askatasuna plazan

**Inauteri Jaian ere izango da kontzerturik. Askatasuna plazako aterpean, Gaueko Itzalak eta Arima Sutan taldeek euren lan berrienak aurkeztuko dituzte. Garraxi berbena taldea ere arituko da larunbateko musika festan.**

Gaueko Itzalak taldea Lasarte-Orian osatu zen 2006 urte amaieran. Iaz, lehen lana argitaratu zuten, 8 abestiz osatzen dena. Horien artean da “Knocking on heaven´s door” kantuaren bertsioa.

www.myspace.com/gauekoitzalak

### Arima Sutan, lan berriarekin

Arima Sutan taldekoak Barañain herrikoak (Nafarroa) dira. Egunotan, "Marratik kanpo margotzen" izeneko diskoa ari dira aurkezten.

www.myspace.com/arimasutan



GAUEKO ITZALAK TALDEKOAK SANTUENEKO FESTETAN ARITU ZIREN.

KONTZERTU GAUA: Arima Sutan, Gaueko Itzalak eta Garraxi berbena taldea.

EGUNA ETA ORDUA: Otsailak 21 larunbata, 22:30ean.

TOKIA: Askatasuna plaza.

SARRERA: 3 euro, egunean bertan.

ANTOLATZAILEA: Usurbilgo Gazte Ekimena.

## Euskal Kantu Ikastaroa, asteartero Udarregi ikastolan

Herritar talde batek Kantu Taldea sortu du Usurbilen. Helburua euskal kantak bultzatzeko gunea sortzea da. Irakasle lanetan Udarregi Ikastolako musika irakaslea ibiliko da. Dagoeneko hogeitamaika laguneko taldea osatuta dago. Ordutgeia, 19:30etatik 20:30etara, Musika gelan.

## Otsailaren 28an, 1956an jaiotakoen kinto afaria Saizarren

Datorren otsailaren 28an bilduko dira 1956 urtean jaiotakoak, Saizar sagardotegian egingo duten afarian. Gaueko 21:00etan Saizarren bertan.

Izen emateko epea, otsailaren 26ra artekoa izango da, honako telefono zenbakietan: 695 780 696 edo 639 510 749.

## Martxoan hasiko da sukaldaritza ikastaroa

Einean Guraso Eskolak antolatuta, sukaldaritza ikastaroa egingo da martxoan Agerialden. Xabi Tello izango da irakaslea eta izen-ematea irekita dago.

Ikastaroak sei asteko iraupena izango du eta astean behin izango dira klaseak. Izena emateko edo informazio gehiago: 615 006 535.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA



## Etxebizitza

- Bikote batek logela alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943575788 / 609901734.
- Pisua salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m2 - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m2), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

## Salerosketak / garajeak

- Garaje bat alokatzen dugu Zubiaurrenea 10ean. Interesatua bazaude: 943 36 58 63.
- Xsara Picasso salgai. 2000 urtekoa eta egoera oso onean. 4500 euro, negoziagarriak. 610975757 (Paulo).
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Usurbilen lokal bat daukat alokatzeko 350 euro hilean. Komuna dauka. 650938489.
- Komuna duen 75 metro karratuko soto komertziala alokatzen dut Usurbilen. 650943847.
- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m². Oso merke. 657 700 408.
- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 30 metro karratuko lokala alokatzen da (Truke denda zena). 943373481 / 943373414.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaragainan (Dia supermerkatuaren ondoan) 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

## Lanpostuak

### Lan-eskaerak

- Astelehenetik ostiralera eta 13:30tatik 16:30 etxeko lanak eta umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 615 756 893.

### Lan-eskaintzak

- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informeak ditut. 697737459.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.

## Bestelakoak / Galdutakoak

- Duela aste batzuk Agerialdeko frontoi inguruan patinete bat topatu genuen eta udaltzaingoaren galdutakoen sailean utzi genuen. Galdu duena joan dadila bertara.
- Pasa den urtarrilaren 29an erloju bat galdu nuen, Erreka Txiki eta Kale Nagusi inguruetan. 943 371919.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



**Zorionak Onintza!** Otsailaren 21ean izango da zure urtebetetzea. Gurasoak eta Enekok zorionak eta muxu handi bat bidali nahi dugu gure printzesarentzat.



**Zorionak Janitz!** Otsailaren 25ean 2 kandelatxo jarriko ditugu pastelean. Txoko-marrubizko muxuak etxekoen partez.



**Ze uste zenuten ahaztu egingo zitzaidala?** ba bai, baina ez kezkatu oraindik ez da berandu hemen azaltzeko. Zorionak bikote!!



**Zorionak Xabat!** Otsailaren 20an egingo dituzu 5 urte. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko guztien partez. Ondo ondo pasa!



**Zorionak Nahia!** Otsailaren 19an gure etxeko bihurriak 2 urte egingo ditu. Marrubizko muxuak, Zuhaitz eta etxeko guztien partez!

## Jaiotzak

**Aimar Ibarreta Markotegi**, urtarrilak 22
**Diego Del Canto Lopez**, urtarrilak 24
**Nagore Faro Ikutza**, otsailak 2
**Aner Altuna Aizpurua**, otsailak 12

## Hildakoak



**Toribio Arruti Izeta**
Otsailaren 11n hil zen
49 urterekin

**Oharra:** Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan:
Telefonoz: 943 360 321. E-postaz: erredakzioa@noaua.com

# Iñauteriak 2009

# Usurbil

## Joku Olinpikoak

### Haurrentzat

Goizean 11:30tan: Mozorro festa

13:00tik aurrera: Kalejira

Arratsaldean, 16:30etatik aurrera: Kalejira

### Denentzat

18:30tan: Desfile Olinpikoa, BTK Batukadarekin

Gauean: Olinpiadetako afaria



anima zaitez!!

Laguntzailea:

# TxoTx!!


AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 · USURBIL · Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81


ERRETEGIA·NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL


✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


Aginaga
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com